

## **2. ildoak: EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK 6-15 URTE ARTEKO UME ETA GAZTEENTZAT**

### **1. HARTZAILEAK**

- Eskatzailea eta laguntza jasoko duena, adingabekoaren legezko erantzulea izango da eta biak (legezko erantzulea eta adingabea), errentaren gaineko aitortpenean, elkarrekin agertu beharko dira.
- Dirulaguntzaren helburua, euskalduntze ikastaroetan diharduten Getxoko gazteen eta umeen (6tik 15 urtera bitartean, **2008tik 2018ra bitartean jaiotakoak**, biak barne) matrikula ordaintzen laguntzea da.

### **2. IKASTAROAK**

Diruz lagunduko direnak:

- Ume eta gazteentzat bereziki pentsatutako euskalduntze ikastaroak.
- Euskaltegi homologatuetan burututakoak edo umeentzako euskaltegietan burututakoak.

EZ dira diruz lagunduko:

- Klase partikularrak.
- Eskola orduetan burutzen diren ikastaroak.
- Autoikaskuntza ikastaroak.
- Familia barnetegiak.
- Desplazamenduak.
- 45 ordu baino gutxiagoko ikastaroak.

### **3. BALDINTZAK**

#### **3.1. Baldintza ekonomikoak**

Eskatzailearen diru-sarrera likidoak (zerga oinarri orokorra + aurrezkien zerga-oinarria) ezin izango dute beheko taulan ageri diren kopuruak baino altuagoak izan (IKUS gehieneko diru-sarreraren taula).

#### **3.2. Asistentzia**

Gutxienez, ikastaroaren ordu teoriko guztien %75eko asistentzia.

### **4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

**01.- Euskaltegiko matrikularen ordainagiria.** Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du agiri hau.

**02.- Asistentzia ziurtagiria.** Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

**03 eta 04.- ziurtagiriak.** Gizarte Segurantzarekin eta Foru Ogasunarekin zorrik ez izatearen ziurtagiriak. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

Getxoko Udalarekin zorrik ez izatea ere konprobatuko du Euskara Zerbitzuak.

**05.- Ume edo gaztearen ordezkari legalaren 2023ko errenta aitortpena** edo egin behar ez izanaren ziurtagiria. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du errentaren gaineko aitortpena.

## **GEHIENEO DIRU-SARRERAK**

Eskatzailearen errenta aitortenean ageri diren diru-sarrera likidoek (zerga-oinarri orokorra + aurrezkien zerga-oinarria) ezin izango dituzte gainditu ondorengo taulan ageri diren kopuruak:

<b>FAMILIAN ZENBAT KIDE</b>	<b>GEHIENEO DIRU-SARRERA LIKIDOAK</b>
<b>1</b>	<b>43.660 €</b>
<b>2</b>	<b>56.340 €</b>
<b>3 edo 3tik gora</b>	<b>62.006 €</b>

Eskatzailearen eta bizikideen sarrerak egiaztatzeko **2023ko ekitaldiko errentaren gaineko aitortena** begiratuko da.

### **OHAR GARRANTZITSUAK**

- Eskatzailearen eta bizikideen 2023ko errenta aitorteneko diru sarrera likidoak begiratuko dira.
- Eskatzaileak 2023ko errenta gaineko aitortena egin beharrik izan ez badu, Udalak ofizioz konprobatuko du edo horretara ukatuko balitz, eskatzaileak ziurtatu beharko du egiaztariaren bitartez.
- Benetako egoera ekonomikoa okerrera aldatu izan balitz egiaztatu beharko da eskabidea egiterakoan.
- Bekak esleitzerakoan, Oinarrizko errenta jasotzen duten familiak lehenetsiko dira.